



Anthony WALLACE | AFP

IKUSMIRA

HONG KONG, KORONABIRUSA ETA TXINA

Hong Kongeko agintariak Txinatik datozen bisitarietara atea ixtea erabaki dute aste honetan, koronabirusaren hedapenaren eraginez. Kolonia izandakoaren eta Wuhanen arteko aldea ikaragarria dela baieztatu dute gaixotasunaren inguruko erreakzioek: koronabirusa sortu omen zen hiriko herritarrak agintariak esandakoa betetzen saiatzen diren bitartean, hongkongdarrek su eman diote kutsatuak koarentenan jartzeko prestatzen ari ziren eraikinari. Pekinek aditzera eman du Fanlingen beren haserrea azaldu zutenak ez zire-

la bere aurkako manifestariak, inguruan bizi diren herritarrak baizik. Txinako Gobernuaren propaganda ariketa erraldoi baten itxura duen operazioak ikusgarritasun apur bat galdu egin du: mila-ka mediku bidali dituzte Wuhanera, baina horientzako babes jantzi berezirik ez dute, esaterako. Mendebaldeko agintariak, berriz, Osasunaren Munduko Erakundeari kasurik ez egitea erabaki dute, eta beren herritarrak ekarri. Gaixotasuna gehiago zabaldu dadin? joseangel.oria@gaur8.info